

PROBA ESPEZIFIKOA

2012ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1.- Egin ezazu beheko irudiari buruzko iruzkin bat, alderdi hauek kontuan hartuta:

- a) Paisaiaren elementu nagusiak.
- b) Populatze mota.
- c) Ekonomia-jarduerak.
- d) Parte hartzen duten faktore fisikoak eta giza faktoreak.
(3 puntu).



2.- Hautatu eta erantzun bi galdera hauetako bati.
(3 puntu).

- A. Euskal Herriko klima mota nagusiak.
- B. Espainiako migrazio-mugimenduak (aipatu Euskal Autonomia Erkidegoa)

3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hautatu 3)
(1 puntu).

- Lehengaiak.
- Latitude geografikoa.
- Goi-lautada (meseta).




- Parke teknologikoa.
- Itsas zabaleko arrantza (Alturako arrantza)
- Hiri-birgaitzea.

4.- Egin ezazu beheko populazio-piramideari buruzko iruzkin bat, alderdi hauek kontuan hartuta:

- Piramideko datuen azterketa.
- Talde bakoitzaren jaiotze-urtea kalkulatzeko.
- Adin taldekako banaketa (gazteak - helduak - adinekoak).
- Piramidearen formaren definizioa.
- Adierazi profil bakoitzaren irregulartasunak eta sexuen araberako banaketa. Azalpena gertaera historikoetan oinarrituta.
- Konklusioak: gaur egungo egoera eta etorkizuneko bilakaera. (3 puntu).

Espainiako populazioaren piramidea (2007)



Iturria: Estadística Instituto Nacionala. 2007ko urtarrilaren 1eko errolda



EBAZPENA: GEOGRAFIA (2012ko maiatza)

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1.- Egin ezazu beheko irudiari buruzko iruzkin bat, alderdi hauek kontuan hartuta:

- a) Paisaiaren elementu nagusiak.**
 - b) Populatze mota.**
 - c) Ekonomia-jarduerak.**
 - d) Parte hartzen duten faktore fisikoak eta giza faktoreak.**
- (3 puntu).



Erantzuna:

Argazkiak **paisaia berde eta menditsu** bat erakusten du, Iberiar penintsulako iparraldekoa eta klima atlantiko edo ozeanikoa duena. Lehenik, harana nabarmentzen da mendikate baten ondoan. Herria inguruko beste herri batzuekin lotzen duen errepidea eraikitzeko, harana erabili da.

Lehen planoan, **herri txiki bat** ageri da, Espainiako iparraldeko eskualde atlantikoko edo mendialdeko herri tipiko bat. Herrigune txiki bat da, etxe gutxiz osatua eta hirugarren sektorerik (zerbitzu-sektorerik) ez duena edo oso txikia duena. Gainera, paisaia mota dela eta, litekeena da **populazio sakabanatua**



izatea. Populatze mota hori ohikoa da euria urte osoan duten eskualdeetan; adibidez, **klima atlantikoa edo ozeanikoa** dutenetan.

Herrigune horren inguruetan ageri diren lurrak gehienbat abeltzaintzarako edo basogintzarako erabiltzen dira. **Tamaina txikiko lursailak** (minifundioa) dira nagusi.

Basoa mendiko ohiko basoa da: beheko mailan, **hosto erorkorreko basoa** ager daiteke, eta, gorago, **konifero-basoa**. Eremu garaienetan, **arroka ama** biluzik ageri da.

Paisaia hori, eta bereziki populatze mota hori, erabakitzen duten **faktore** nagusiak naturalak dira, erliebea batez ere. Irudian ikusten den moduan, mendi-erliebeak zaildu egiten ditu laborantza bakarrera bideratutako ustiategi handiak, eta erraztu, berriz, ustiategien dibertsitatea eta sakabanatzea. Hala, sustatu egiten du populazioaren sakabanatzea.

Giza faktoreetan, ustiatze eta jabetza motak dira garrantzitsuenak. Oro har, lurra banaka lantzen denean, populatze sakabanatua izaten da nagusi.

Ekonomia-jarduera nagusiak **lehen sektoreari** dagozkio: nekazaritza eta, nagusiki, abeltzaintza, goialdeko larre eta belardien ugaritasuna dela eta.

2.- Hautatu eta erantzun bi galdera hauetako bati.

(3 puntu).

A. Euskal Herriko klima mota nagusiak.

B. Espainiako migrazio-mugimenduak (batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoarekin zerikusia dutenak).

A gaiaren erantzuna: Euskal Herriko klima mota nagusiak.

Euskal Herria ez da klima-eskualde homogeen bat. Gaingiroki, hiru zona bereizten dira: Iparraldean, isurialde atlantikoa; erdialdean, Euskal Herri ertaina; eta, hego-muturra, Ebroren sakonunean eta Arabako Errioxan sartuta.

a.- Isurialde atlantikoa: klima atlantiko edo ozeanikoa.

Isurialde atlantikoan Bizkaia eta Gipuzkoa osorik sartzen dira, Arabako eta Nafarroako iparraldeko haranak eta Euskal Herria kontinentalak. Klima mesotermikoa du, tenperatura epelekoa eta oso euritsua. Urtaro lehorrik gabeko klima epel hezea deritza, edo klima atlantiko edo ozeanikoa.

Klima horretan, eragin nabarmena du Ozeano Atlantikoak. Aire-masak, ozeanoko ur epelekin kontaktuan epeldu ondoren, kostara iristen dira, eta, haiei esker, gauaren eta egunaren arteko, edo udaren eta neguaren arteko, tenperatura-bitarteak ez dira oso nabarmenak. Orografiari zor zaio Euskal Herriko isurialde atlantiko osoko euri kantitate handia: 1.200 eta 2.000 mm-tik



gorako batez besteko prezipitazioa urtean (Sondika, 1.236 mm; Donostia, 1.529 mm).

Klima hezea da, hilabete lehorrik gabea (30 mm baino gutxiagoko prezipitazioa duena da hilabete lehorra). Prezipitazioak, ugariak eta erregularrak, fronte polarrari elkartutako depresioek eragiten dituzte; neguan eta udazkenean, ugariagoak dira.

Temperaturei dagokienez, aipatzekoa da moderazioa, nagusiki neguen epeltasunean adierazten dena. Horregatik, udak ere epelak izan arren, urteko batez besteko temperaturei dagokienez kostakoak dira Euskal Herriko handienak: 14 °C inguru. Udak freskoak badira ere, gerta daitezke beroaldi laburrak ere, 40 °C-rainoko temperatura-igoerekin, udan batez ere.

b.- Bitarteko zona: trantsizio-klima

Euskal Herriko zona ertaina edo trantsizio-zona. Klima ozeanikoaren eta klima mediterraneoaren arteko trantsizio-zona da; ezaugarri atlantikoak dira nagusi, ez baitago benetako uda lehorrik.

Trantsizio-klima edo klima subozeanikoa:

Prezipitazioak urritu egiten dira hegoalderantz egin ahala, erliebearen eragina dela eta. Eremu ozeanikoaren eta mediterraneoaren arteko sektorean egiazta daiteke hori; zehazki, banalerroaren ondo-ondoan, hegoaldera, dagoen Pirinioaurreko arroan: Arabako lautada, Arakileko igarolekua eta Iruñeko artoa. Klima honetan, euri-erregimena atlantikoa da, baina prezipitazioak txikiagoak dira foehn efektua dela eta; hala ere, prezipitazioak 700 mm baino gehiago dira (Bóveda, 774 mm; Iruñea, 753 mm; Gasteiz, 828 mm; Altsasu, 1.178 mm; Esa 832 mm).

c.- Hegoaldeko zona: klima mediterraneo

Hegoalderago, klima mediterraneo-kontinental ageri da, klima ozeanikoaren eraginik gabea.

Arabako Errioxan eta Nafarroako hegoaldean anplitude termikoa handitxo da (17 °C - 18 °C), eta prezipitazioak 600 mm azpitik daude (450 mm ingurukoak izaten dira). Hegoalderantz kilometro gutxi eginda gertatzen den prezipitazio-urritze hori erliebeak eragiten du: Toloño mendilerroa, Kodestik Montejurrara, Izko eta Leire mendilerroak.

Arabako Errioxa eta Nafarroako hegoaldea mendilerro horien haizebean daude. Lur horietatik iparraldera, Trebiñun, Irunberriko arroan eta Estellerrian, prezipitazioak handixeagoak dira, nahiz eta uda lehorra izan.

Itsasoaren eragina txikiagoa denez, urtarotik urtarorako oszilazio termikoak handiagoak dira. Udan, 22 °C-ko batez besteko temperatura gainditzen da hilabete batzuetan; neguan, temperatura baxuek izozteak eta lainoak eragiten dituzte.



d.- Mendialdeko klima

Ezaugarriak hauek dira: negu luzeak eta gogorrak, eta batezbesteko tenperatura 10 °C azpitik egotea urtean hiru hilabete baino gehiagoan. Udak laburrak dira. Prezipitazioak 1.500 mm-tik gorakoak dira. Klima mota hori Erro, Urrobi, Irati, Zaraitzu eta Erronkari haranetan gertatzen da, bai eta 1.000 m-tik gorako altitudeko mendietan ere.

B gaiaren erantzuna:

Espaniako migrazio-mugimenduak (aipatu Euskal Autonomia Erkidegoa)

Espanian, migrazio-mugimenduak biztanleriaren jokaeraren fenomeno demografiko bereizgarrienetako bat dira, zeren eta migrazio-mugimenduak, hala barnekoak nola kanpokoak, garrantzitsuak izan baitira eta erabakigarri gertatu baitira haren historian.

Migrazio-mugimenduetan, barnekoak (herrialdearen barnean gertatzen direnak) dira, kantitateari dagokionez, garrantzitsuenak. Kausak, batez ere, ekonomikoak dira (langabezia, presio demografikoa, eskulan-beharra...); beraz, herrialdearen egoeraren isla dira, eta, horregatik, eskualdeen arteko desoreken erantzuleak dira.

Zenbait **barne-migrazio mota** daude, denboraren eta migrazioaren helburu diren lekuen arabera.

Urtarokoek edo aldi batekoek iraupen mugatua dute, eta ziklikoak izan ohi dira (nekazaritzaren uztaroak); **behin betikoak edo iraupen luzekoak** mota bat baino gehiagokoak dira: garrantzitsuena landa-eremutik hirietarako migrazioa da, nekazaritzaren mekanizazioak eraginda; hala ere, hirien artekoak, landa-eremuen artekoak edo hiri barnekoak ere izan daitezke. Azkenik, **barneko pendulu-migrazioak** daude, erdigunearen eta periferiaren artean gertatzen direnak lan- edo aisia-arrazoiak direla eta; gaur egun, era horretakoak hazten ari dira, ez bakarrik hiriak hazten ari direlako, baizik eta baita aisialdiko turismo-empresa handiak agertzen ari direlako ere.

Kausak eta haien arteko **aldeak** aztertzeke, beharrezkoa da kontuan hartzea noiz gertatzen diren; horri dagokionez, hiru atal, ondo bereziak, egin ditzakegu:

- **Nekazari-exodoa, 1960tik 1975era.** Mugimendu hori modu masiboan gertatu zen metropoliak garatzeaz batera. 1964. urteak du aldi osoko emigratzaile kopururik handiena. Urte horietan, 15 probintziak bakarrik dute saldo positiboa, eta 35ek negatiboa. Datu horrek erakusten du jomugak oso kontzentratuta daudela eta jatorri-ugaritasun handia dagoela. Jatorrietan, nekazaritza-jarduerak eta hazkunde demografiko handia duten probintziak nabarmentzen dira. Immigrazio-gune gisa, Bartzelona eta Mediterraneoko probintziak nabarmentzen dira; barnealdean, Madril, Araba eta Zaragoza. Guztiak ere ekonomia-jarduera ugariko hiri gisa ageri dira —jarduera horien artean, turismoa



agertzen da—, eta eragin-eremu zabala dute. Horiek behin betiko migrazioak dira.

- **Itzulera-mugimenduak, 1975etik 1985era.** 1975az geroztik, nekazari-exodoa murriztu egin zen, eta metropoli handietan hazkunde-krisi bat hasi zen agertzen. Aldi berean, handituz joan zen tamaina ertaineko hirien erakargarritasuna. 1975eko krisi ekonomikoa izan zen kausa, migrazio-korranteetan aldaketak eragin baitzituen: emigranteak beren sorlekuetara itzuli ziren, eta hirien arteko migrazioak hazi egin ziren. Saldo positiboa duten probintzien kopurua handitu egin zen. Gunerik erakargarrienak bigarren belaunaldiko immigrazio-probintziak dira (Tarragona, Girona, Alacant, Castelló, Araba, Nafarroa edo Zaragoza); beste batzuek itzuleragatiko saldo positiboak dituzte. Bartzelona, Bilbo eta Gipuzkoa, berriz, emigrazio-zona bilakatu ziren; Madril ere bai, baina geroago, haren industriaren dibertsifikazioa handiagoa baitzen.

Oro har, saldo positiboa banatu egin zen, eta negatiboa kontzentratu, migrazio-joera alderantzikatu zenean. Emigratzaileen ezaugarriak ere aldatu egin ziren. Lehen, pertsona gazte eta ezkongabeak izaten ziren: lehen sektoretik bigarreneara pasatzen ziren. Gero, mugimenduak familia osoenak izan ziren: hiri handiko bigarren sektoretik probintzia-hiriburuetako hirugarren sektorera igaro ziren.

- **Probintzia barneko migrazioen garapena 1985az geroztik** (baina horrek ez du esan nahi probintzien artekoak desagertu direnik). Arrazoia mugikortasuna da: hala profesionalena, gune ekonomikoki garatuagoetatik hiri ertainetara doazenena, nola birmoldaketa-prozesuen ondorioz erretiratu eta aurretik erretiratuena, industriaguneetatik sorlekuetara migratzen dutenena. Orobat, hiri barneko migrazioa gertatzen ari da gaur egun, zentrotik periferiara, garraio-sistemen hobekuntzak lagunduta. Horren ondorioz, asko hazi dira lo-hiriak eta era guztietako bizitegi multzoak. Pendulu-mugimendu horiek oso garrantzitsuak dira hiri batzuetan; adibidez, Bilbon, Madrilen eta Bartzelonan.

Barne-immigrazioa, hain garrantzitsua 1950 eta 1960ko hamarkadetan, desagertu egin da **Euskadin**; gaur egun, atzerritarrak iristen dira (Europako ekialdetik, Afrikatik eta Hego Amerikatik), baina beste autonomia-erkidegoetan baino portzentajea txikiagoan.

Kanpo-migrazioei dagokienez, nabarmendu beharra dago Espainia emigratzaile-herria izan dela: baliabide faltak, populazioa XIX. mendearen erdialdeaz geroztik azkar hazi izanak, industriaren atzerapenak eta Gerra Zibilaren ondorengo diktadurak populazioa irtetea eragin zuten. Hala ere, gaur egun (batez ere, 1970 hamarkadatik hasita), joera irauli egin da, eta Espainiak, orain, populazioa jasotzen du Europako beste herrialde batzuetatik, eta, batez ere, Hirugarren Mundu deitutakotik.

Horren **zergatian**, lehenik, Espainiaren egoera politikoa eta ekonomikoa nabarmendu behar da; 1978az geroztik herrialde demokratiko eta egonkorra da



ikuspuntu politikotik, eta, aldi berean, ekonomikoki garatu egin da, batez ere Europar Batasunean sartu zenetik.

Jatorrizko herrialdeak aldatuz joan dira. 1970eko hamarkadako urteetan iberoamerikarrak ziren nagusi, diktadurazko gobernuek ezegonkortasun politikoa sortzen baitzuten eta Espainiak kultura-harremanak baititu Iberoamerikarekin. 1980ko hamarkadan, Iranetik eta Iraketik iritsitako populazioa hazi zen, bi herrialdeen arteko gerrak eraginda. Berlingo harresia eta Sobietar Batasuna desagertu ondoren, Europako ekialdetik iritsitako populazioa hazi zen, eskualde haien desegituratze ekonomikoa zela eta. Bosniako gerrak, bestalde, Jugoslavia ohiko immigranteak iristea eragin zuen. Gaur egun, garrantzi nabarmena dute Afrikatik iritsitako immigranteek, batez ere Magrebetik iritsitakoek, Marokotik eta Aljeriatik. Bi herrialde horietan populazioa oso azkar hazten ari da; beraz, lan egiteko adinean dauden gazte asko dituzte, eta langabezia-tasa oso handiak dira ekonomikoki atzeratuta daudelako eta globalizazioak eragindako desegituratzeagatik. Horretaz gainera, fundamentalismo islamikoaren garapenak sortu dituen arazo politikoak daude, batez ere Aljerian.

Espainian bizi diren emigratzaileak **hiru taldetan sailkatu** daitezke zein egoeratan dauden kontuan harturik: zenbait urte bertan bizi ondoren herritartasuna lortzen dutenak eta, beraz, eskubide osoko espainoltzat hartzen direnak; bizilekua izateko baimena lortzen dutenak baina jatorrizko herritartasuna atxikitzen dutenak (lan egiteko baimena dutenak, errefuxiatu politikoak eta haien familietako kideak); eta "legez kanpoko" immigranteak, "paperik gabekoak", juridikoki existitzen ez direnak eta, horregatik, nekez kuantifika daitezkeenak. Atzerriko immigrante aitortu gehienak Europako herrialdeetakoak dira: Alemania, Frantzia, Portugal eta Erresuma Batua; ondoren, latinoamerikarrak, eta, azkenik, iparrafrikarrak daude.

Atzerriko biztanle gehien dituzten **erkidegoak** lan-aukera zabaleneakoak dira, hala nola Madril eta Katalunia, eta ondoren daude Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Kanariak. Gehienbat lehen sektorean (nagusiki, nekazaritzan) eta hirugarren sektorean (eraikuntzan eta etxeko zerbitzuan) jarduten dute.

Ondorioei dagokienez, aipatzekoak dira jatorrizko herrialdeetan gertatzen direnak. Izan ere, ondoen prestatutako eta ugaltzeko adinean dagoen populazio-sektorearen zati bat galtzen dute; eskualde batzuk ia erabat husten dira, eta atzeratu egiten dira balizko aldaketa ekonomiko eta politikoak, atzerrira egiten baitu aldaketa horiek bultzatzen dituzten populazioak.

Baina aipatzekoak dira, halaber, ondorio positiboak, hala nola dibisen sarrera, familien nahiz, oro har, herrialdearen berrindartze ekonomikoari laguntzen diona.

Jomuga diren herrialdeei dagokienez, kasu honetan Espainiari dagokienez, ondorio positiboak aipatu behar dira lehenik, hala nola eskulan merkea iristea, espainiarrek baztertzeko dituzten lanpostuak hartzen dituenak. Hala, handitu egiten da Gizarte Segurantzaren erregimen orokorreko kotizazioen kopurua eta, ondorioz, murriztu egiten da mendekotasun-tasa. Bigarrenik, iristen den populazioa gaztea da, eta, ondorioz, igo egiten da jaiotza-tasa oso maila apaletan zegoen erkidegoetan (zenbaitetan, Europako maila baxuena zuten).



Azkenik, aipatu beharrekoa da arrazakeria eta xenofobia areagotu egin direla zenbaitetan, gizarteratze-zailtasunengatik, bereziki etorkinek legez lan egiteko aukerarik ez dutenean eta ghettotan zokoratuta geratzen direnean. Horrelako egoerak saihesteko, beharrezkoak dira ahal bezain azkar gizarteratzen lagunduko luketen politika ekonomiko, sozial eta kulturalak, eta, horrelakorik ezean, kultura-aniztasuna bultzatzea. Horregatik, gero eta etorkin gehiago iristen denez, gobernuak saiatzen ari dira kontrol-, gizarteratze- eta asimilatze-politikak indarrean jartzen.

3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hautatu 3)

(1 puntu).

- **Lehengaiak.**
- **Latitude geografikoa.**
- **Goi-lautada (meseta).**
- **Parke teknologikoa.**
- **Itsas zabaleko arrantza (Alturako arrantza)**
- **Hiri-birgaitzea.**

Erantzuna:

Lehengaiak. Industriako transformazio-prozesuetan erabiltzen diren produktu naturalak. Haien jatorria askotarikoa izan daiteke: nekazaritzatik lortutakoetatik (hala nola ehungintzarako zuntzak edo elikagaiak) mineraletara.

Latitude geografikoa. Lurraren gainazalaren edozein punturen eta ekuatorearen arteko distantzia angeluarra.

Goi-lautada (meseta). Itsasoaren mailaren gainetik dagoen lautada. Espainiakoak 600 eta 700 metro bitarteko altuera du. Iberiar penintsulako erliebearen oinarritzko unitate bat da.

Parke teknologikoa. Goi-teknologiako industriak biltzen dituen industriagunea. Oro har, ekimen publikoak sustatu ohi du parke teknologikoen instalazioa.

Itsas zabaleko arrantza (Alturako arrantza). Kostatik urrun eta arrantza-teknika modernoak erabiliz egiten dena.


Hiri-birgaitzea. Hirigune bateko eraikin zaharretan egiten diren aldaketak, eraikin horiek mantentzen laguntzeko egiten direnak denborak eragindako narriadura eragozteko eta kontserbatu ahal izateko.



4.- Egin ezazu beheko populazio-piramideari buruzko iruzkin bat, alderdi hauek kontuan hartuta:

- Piramideko datuen azterketa.
- Talde bakoitzaren jaiotze-urtea kalkulatzeko.
- Adin taldekako banaketa (gazteak - helduak - adinekoak).
- Piramidearen formaren definizioa.
- Adierazi profil bakoitzaren irregulartasunak eta sexuen araberako banaketa. Azalpena gertaera historikoetan oinarrituta.
- Konklusioak: gaur egungo egoera eta etorkizuneko bilakaera. (3 puntu).

Espainiako populazioaren piramidea (2007)



Iturria: Estadística Instituto Nacionala. 2007ko urtarrilaren 1eko errolda

Erantzuna:

Iruzkindu beharreko populazio-piramideak Espainiako populazioaren 2007. urteko banaketa erakusten digu. Erraboi-itxura antzematen zaio; hau da, piramide atzerakorra da, demografian zahartzen ari den gizarte bat adierazten duena. Beraz, beherakorra eta atzerakorra da, jaiotza-tasa oso txikia eta heriotza-tasa ere txikia duen herrialde garatu bati dagokiona.

Jaiotza-tasa txikiaren arrazoiak hauek dira: emakumea lan-munduan sartu izana, seme-alabek dakarten kostu handia (dirua eta esfortzua), eta antisorgailuen erabilera hedatu izana.

Bestalde, **bizi-itzaropena oso handia da**, bizi-baldintzen hobekuntzaren ondorioz (elikadura, osasuna, ohiturak...). Bizi-itzaropena handiagoa da emakumetan gizonetan baino; hori hala da lanaren gogortasunagatik,



zirkulazio-istripuengatik, alkohol eta tabako gehiegi kontsumitzeagatik, gerretan parte hartzeagatik eta arrazoi genetikoengatik.

Ondorio horretara iristen da, orobat, adin taldekako egiturari begiratzuz gero. Oinarria 0 eta 16 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Ezin dute lan egin, eta, beraz, besteen mendekoak dira. Oinarria estua da, eta ikusten da azken 20 urteetan murriztuz joan dela.

Hurrengo adin taldea 16 urtetik gorako helduek osatzen dute. Lanerako adinean dauden pertsonak dira, eta tartea nabarmen zabala da, zeren, gero azalduko dugun moduan, Baby-boom delakoan jaio ziren pertsonak baitira; haiek eusten diete gizarte horren zama sozial eta ekonomikoei. 65 urtetik gorako taldea gehienbat pertsona erretiratuek —eta, beraz, besteen mendeko direnek— osatzen dute. Tartek zabalerari eusten dio, hilkortasun txikiaren eta bizi-itxaropen handiaren seinale.

Sexuaren arabera, ikusten da mutikoak gehiago direla jaiotzean, baina emakumeak gizonak baino gehiago dira piramidearen gailurrean. Ziur asko, arrazoi genetikoengatik izango da, emakumea gizona baino luzeago bizi ohi baita.

Datu horiek ikusita, ondorio hau atera dezakegu: Espainiako 2007ko populazioak gaitutua du dagoeneko trantsizio demografikoa, eta erregimen demografiko modernoko fasean sartuta dago, jaiotza-tasa txikia eta bizi-itxaropen handia baititu.

Beraz, gizarte postindustrial bat da, eta hainbat arrazoik eraman dute parametro demografiko horietara: emakumea lan-munduan sartuz joan izana, garapen ekonomikoa, osasunaren eta higienaren hobekuntzak, antisorgailuen ezagutza eta kontrola, gizarte-jokaeraren eredu-aldaketa —ezkongabeen kopuruak gora egitea, guraso bakarreko familiak— eta abar.

Piramide honen irakurketatik atera daitezkeen gertaera historikoei dagokienez, irtengune nabarmen bat ageri da oinean, azken lau urteetan jaiotako haurren gehitze txiki bat: immigranteek herrialdeko jaiotza-tasari egindako ekarpena da. Aurreko urteetan, berriz, ikusten da jaiotza-tasa urrituz joan dela pixkanaka. Ondoren, irtengune handi bat ageri da helduetan, gorago esan dugun bezala Baby-boom-ari zor zaiona. 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 80koan gertatutako jaiotza-tasaren handitze bat izan zen, desarrollismo ekonomikoa eta jaiotzen aldeko politikak sustatua. Garai hartan jaiotakoek eusten diote gaur egun lanaren zamari.

Azkenik, 1936-1939 bitarteko Gerra Zibilak demografian eragindako txikizioak —bai hildakoak eta atzerriratuak, bai gerraren eta gerraondoaren ondorioz jaio ez zirenak— 65-74 adin-tartean ageri den hozkan islatzen da.

Populazioaren zahartzearen ondorioz, murriztu egiten da populazio aktiboa. Alegia, zergak ordaintzen dituzten pertsona gutxiago daude eta zerga horiekin



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

GEOGRAFÍA

mantendu beharreko pertsona gehiago daude (haurrak eta adinekoak). Egoera horren ondorioz, **ezinezkoa izango da gaur egungo ongizatearen estatuak irautea** (gizarte-segurantza, doaneko hezkuntza, pentsioak, bekak, osasun-zerbitzuak...).

Langile kopurua jaitsi egingo denez, gazteek arazo gutxiago izango dituzte lana aurkitzeko.

Populazio-defizita nolabait zuzentzeko gizarte horiek daukaten aukeretako bat immigrazioa da. Immigranteek handitu egiten dute jaiotza-tasa, eta, lan egiteko adinean dauden helduen taldean daudenez, beren lan-kargarekin lagundu egiten diete gizarte-gastuei.

NBERen aurreikuspenen arabera, Espainia gaur egun 40 milioi biztanle baino gehiago izatetik 31 milioi izatera pasa liteke 2050. urtean. Munduko herrialderik zahartuenetako bat gara. Joera hori, partez, immigrazioak zuzentzen du, populazioa nabarmen gaztetzen baitu.



EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Ongi argudiatuta ematen du iritzia.
- Badaki grafikoak interpretatzen eta iruzkintzen.

GALDEREN KALIFIKAZIOA:

- 1., 2. eta 4. galderak:** 3 puntu
- 3. galdera:** 1 puntu

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
ERLAZIOA**

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
1	G.1., G.2., 1.1., 1.2., 3.1., 3.2., 3.3..
2	G.1., 3.1., 3.2./G.1., 5.1., 5.5.
3	3.1., 4.1., 5.2
4	G.1., G.2., 5.1.